



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2010-01-10**

VIII. URTEA 1.899. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Langabetu kopurua %41 igo da 2009an INEM-eko zerrendetan

**TOLOSALDEA** Mari Mujika (LAB): «Instituzioek eta 28 udalerrietako ordezkariak zerbait esan beharko dute»

**PAPERGINTZA** 'Paper-hiribildua' bezala ezaguna izatetik industria-sarea galtzera pasa da eskualdea 6



Areson elurrak jolaserako aukera eman zuen belardiak zurituz. Tolosan elurra gogotik egin zuen atzo. HITZA

## TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ELURRAK ESTALI DITU

**ERREPIDEAK** Nafarroako Gobernuak aurrez pentsatutako makina kopurua biderkatu zuen; A-15a goizean itxita egon zen une batez 5



300 lagun inguru elkartu ziren atzo Lizartzako kaleetan. HITZA

## Peio Olanoren askatasuna eskatu dute manifestazio «jendetsu» batean

**LIZARTZA** Inkomunikazioak irauten duen bitartean elkarretaratzeak egingo dituzte 5

**Zeberio II.ak**  
hirugarrengoan  
lortu du  
finalerako  
txartela

**ELDUAIN** Finalerdietako kitarako partida 38-40 irabazi zuen Badiolarekin 4

**Elurrak ez du**  
oztopatu  
**I. Antton Pebet**  
Memorialeko  
finalak jokatzea

**VILLABONA** Jubeniletan garaileak Loidi-Zinkunegi, eta kadeteetan Artola-Nazabal 4

## Lehen eta orain



# Eraikina eta bizimodua franko aldatu dira

**BELAUNTZA** • Azken eraberritze lanek urtebete iraun baldin bazuten ere, ez da denbora alferrik igaro Belauntzako Elizan. Eraikineko aldaketez gain, bizimodua nabarmen garatu da. Horren adibide argia, bi argazkietako herritarrek eskaintzen

digute. Azken lanak 2008ko azaroan hasi zituzten, eta indusketetan XI. mendeko beste eliza baten oinarriak aurkitu omen zituzten. 2009ko abenduaren 20ean eman zuten eliza berriuan lehen meza. Bertan 100 lagun baina gehiago el-

kartu ziren eta eraberritze lanez arduratu diren Belauntzako herritarren batzordeko kideek eskerrak eman zizkieten bertaratutako guztiei. Ondoren, ETB ere erakarri zuen eliza berriak. INDALECIO OJANGUREN BILDUMA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA/HITZA

## A Asteko esaldia

«Txalaparta 18 urterekin ezagutu nuen eta aurkikuntza handia izan zen; beste bide bat aurkitu nuen»

**JUAN MARI BELTRAN**  
Musikaria



HITZA

## Z Zurea da hitza • info

# URTE BETE ETA ORAINDIK HIRE ZAI

**Ikaztegieta** » Urte bat joandek eta ez haiz ageri Joxemai

**JOXIBALERDI**

Hala dek bai, urte bat pasa da iada eta oraindik ere non topatuko haugun zai gaudek Joxemai!

Halaxe geratu gaituk hire lagun izateko ohorea izan diagunok. Edozein jai, ospakizun, asteburu iristerakoan edota amankomuneko lagunak ikustean beti hire bila gabiltz non azalduko haren esperoan. Zenbat afari ditugun egiteke oraindik elkarrekin! Eta zenbat eta zenbat kontu esateko, gure «batalitak» goatuz... Baina bazekaigu

lehen edo beranduago egingo dizkiagula. Haon tokin haola tartetxo bat egin behar diguk danori elkartzen gaituken momentuan ospatzeko. Baina hi lasai-lasai ibili eh! Etzeok eta batere presarik!

Oraindikan hik maite deken herrialdehontaz gozatu beharra zuekeu eta!

Beti esateniken bezala eongogaituk Joxemai.  
Agur eta ohore!

### » ERANTZUNAK

■ **Ezezaguna.** «Bai konturatzerako pasa da urtea. Ikazteitarron bihotzean zaude eta halaxe jarraituko dezu urte askoan! Zauden lekuan zaudela, zaindu eta zuk erakutsitako bideari jarraituko diogu! Gora gu ta gutarrak».

■ **Beste lagun bat.** «Ni ere bertan izango nauk afari horretan, Joxemai!».

■ **Lagun bat.** «Nahikoak dituk idatzitako hitz horiek. Beti gogoan Joxemai!».

■ **Beti gogoan.** «Urtebete pasa duk eta Joxik esaten dikan bezala hire zai jarraitzen diagu, baina hire arrastoan. Horregatik elkartuko gaituk afarian eta laster arte esango diagu berriro ere. Agur eta ohore Joxemai!».



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Desagertzearen liburua XI



### » Uzturretik

Koldobika Jauregi

U harte honetara ere urtaroak iristen dira, aspaldi banandu nintzen kostatik eta geroztik nora ezean nabil itsas zabal honetan. Herriarekiko nuen harremana ez dakit hozten edo aldatzen ari zaidan baina argi dago urteen pode-

rioz kanbiatezen ari dela nuen harreman hura.

Zein ezberdin ikusten dira gauzak urteekin, nola tiratu eta tiratzen den zilbor hestea eten arte eta bat batean konturatzen da norbera, etorritako penintsula hartara ez dela inoiz bueltatuko.

Negu, negu zoragarria, hotza ala epel... goxoa. Zergatik gazte garai-ko elur epel hura hotz bihurtu da zahartzaroen?

Garai bateko elur bolak gaztaina morkotsak bezala, ziztagarriak bihurtu ziren.

Elurraren manta zuria, psikiatrikoko alkandora bihurtu zen eta gutako bakoitza oso lanpeturik zegoen, gure burutazioen arteko sa-

sietan galdurik, horrela igarotzen genituen urteak.

Zaharturik? Ez noski, mundua horrelakoa da eta mundukoak, mindutakoak ere bai. Elur zuria, urtean behin edo bi alditan ikusten genuen, zementu zuria ordeztu, elurraren gisa dena estaliz, urtearen zehar.

Urtearen zehar eta gero eta maizago. Itsas portu berrietako pilotek ere bazirudien kosta aldeko lotzeko asmoarekin eginak zeudela.

Bazirudien gure lur maite hura nolabait lotu egin nahi zutela alde egin ez zezan Espainiako erreinatutik; orduan hasi ziren puxka txiki batzuk alde egiten, izeberg moduan eta bakar batzuk tamalez de-

sagertze horretatik alde egiten saiatu ginen eta horrelanire uharte honen bidai bakartia.

Garai hartan bazeuden herri kideak, amets kideak baina haiek ere hiltzen joan ziren eta bere ametsak ez ziren konplitu, etorriko dira besteak...

Artzainak ikusi omen zuen elorri gainean Ama birjina eta esan omen zitxoek «Arantzazu...» ez ote zen alderantziz izango eta Andredre hark esandakoa artzainaren ezpainenetan jarri?

Artzaina eta gu denok, arantza tartean bizi ginen, gure Ama Lur maiteari sartzen zizkieten ormi-goizko arantza bezalakoa, autobideak edo itsas portu egiteko garaian. Gu geunden arantza tarteko gizarte alternatiboan, ez genuen ikusten, itsututako euskal gizarte kontsumitzaile batean geunden

eta hori ametsetatik oso urrun zegoen.

Neurrian ikusita ez zen nahikoa euskara hitz egitea baizik bere botere guztiaz hornitzea. Ez baserri zaharrak hutsik geratzen diren moduan, bizia barrenean behar du egon, memorian, kulturean,...

Hizkuntza batek transakzio komertzialerako baino gehiagorako balio behar du.

Garai haietan bertsolariak ziren puntan, baina askotan doinu politikak eta lotura eta bukaera ederrak baina hutsik.

Kontzientzia ez dago bakarrik hizkuntzan baizik «tresna» honek izango duen indarrean, kultura transmisioan. Garai haietan maizegi erabiltzen zen euskararen «tresna» beste «tresna» baten truke baina hau ez zen nahikoa. Bertsolari hutsak, huts egiten zuten.

## Elur giroaren gora-beherak azoka egunean

**Azoka** » Elurra gailendu zitzaion azokari atzokoan, izan ere erosleen eta saltzaileen artean eragin nabarmena izan zuen.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka egunean elurraren eragina oso nabarmena izan zen. Alde batetik, erosleen kopurua ez zen beste asteburuetakoa izan. Askok eguna zertxobait berotu arte itxaron zuten, eta goiza aurrera zihola erosle gehiago ikusteko aukera egon zen.

Bestetik, saltzaileen kopurua ere ez zen beste egunetan bezalakoa izan. Elurra dela eta, arazo de-xente izan zituzten askok, eta ezin izan zuten azokara jaitsi. Halere, eskaintza ez zen motx geratu, eta erosten guztiak konforme geratu ziren.

Hirugarren eragina etortzeko dago oraindik, eta dudarik gabe, oso baikorra izango da. Landarengan elur honek oso eragin positiboak izango ditu esan dezakegu; bai tamainan eta baita kalitate puntuan ere. Uda aldera begira jarrita eta lurrari dagokionez, elurteak asko lagunduko dio eta horrek onurak ekarriko ditu.



Elurrak eragina eduki zuen atzoko azokan, erosle eta saltzaileen artean. A. IMAZ

### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>	
Azalea	7,00 10,00
Dipladenia	10,50 -
Xarbota	4,00 6,00
Ziklamena	5,50 -
Salbea	1,00 1,20
Zain zuria	2,80 -
Erromeroa	4,00 6,00

### BERTAKO PRODUKTUAK

<b>Perretxikoak</b>	
Onddoak potean	9,00 -

### Fruta

Kiwi	3,50 -
Gaztaina	3,00 -
Intxaurra	2,50 4,00
Matxakanak	5,00 -
Urra	2,00 3,00
Irisagarra	1,00 -
Pikua	3,00 -
Errezil sagarra	2,00 4,00

### Barazkiak (sorta)

Tipula	0,80 1,00
Babarrun berria	12,00 13,00
Babarrun zuria	8,00 -
Tomatea	3,00 -
Gardua	3,00 -
Kayote	3,00 -
Krones	3,00 -
Porruak	1,00 4,00

Ibarrako piparra	3,00 -
Tolosako babarruna	10,00 12,00
Bainak	3,00 -
Patata	1,00 1,50
Espinaka	2,00 -

### Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisua	1,00 1,50
Eskarola rizatua	1,00 1,50
Azalorea	1,00 1,25
Txikoria	1,00 -
Trebisoa	0,50 -
Letxuk	0,50 0,60

### Besteak

Arrautzak	2,50 3,00
Artisauogia	2,80 3,70
Madalenak (500 gr)	3,60 -
Ogi biologikoa (900gr)	3,20 -
Ogi biologikoa (500 gr)	2,20 -

### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00 3,00
Kalabaza	1,60 3,04
Mermelada	3,00 3,60
Arrautzak	3,50 -
Intxaurra	4,00 6,00
Baratxuria	1,60 6,00
Azenarioa	2,00 2,50
Dilistak	2,40 -
Txitxiroak	2,40 -
Ahuntz gazta (200gr)	3,00 -
Arroza	1,90 2,00

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# I. Antton Pebet Memoriala elur goxoarekin amaitu da

**Villabona** » Kadeteetan Artola eta Nazabal izan ziren garaile, eta jubilenetan Loidi eta Zinkunegik osatutakoa.

## ERREDAKZIOAK

Elurrarekin hasi zen, eta elurrarekin amaitu da I. Antton Pebet Memoriala. Elurrak eta hotzak oztopoak jarri arren, lortu zuten Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako pilotariek finalerako garaiz iristea, baita hauek animatzeko asmoz Villabonara bertaratu zirenak ere. Frontoia jendez lepo zegoen atzo.

Hiru final jokatu ziren Bear-Zana pilotalekuan. Kadeteek hasi zuten jardunaldia, pilotari guztiak eskualdekoak zirelarik. Olano aresoarrak eta Tolosa anoetarrak osatutako bikoteak Artola eta Nazabal izan zituzten aurkari. Lehia gogorra izan zen bi bikoteen artean, eta markagailuan ez zen diferentzia handiegirik egon norgehiagokan zehar. Hamaseina joan ziren, baina gero, Artola eta Nazabalek au-

rrer hartu zien besteei, eta 22-18ko emaitzarekin amaitu zen partida.

Jubilenetan, eskualdeko bakarra ikusi ahal izan zen finalean, Urretabizkai ikaztegiatarra hain zuzen ere. Honek Bereziartu zuen bikote, eta Loidi-Zinkunegi gazteak aurkari. Hemen, diferentzia handia izan zen. Ez zen kolorerik egon eta erraz nabarmendu ziren Loidi eta Zinkunegi. Markagailuak 22-4 erakusten zuela amaitu zen lehia.

Jardunaldiak luze jo zuten, eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren erredakzioa ixtean hasi zen azken partida, nagusiena. Hemen ere eskualdeko bakarra aritu zen jokoa, Albizturko Telletxea. Antzuolako Mendizabal eta Mallabiako Aldapek osatutako bikotearen aurka jokatu zuen partida, Goizuetako pilotaria den Narbarterekin batera.

## Finalak amaitu ostekoak

Hotz egiten bazuen ere, une goxo eta hunkigarriak ere bizitu ziren atzo iluntzean, Bear-Zana pilotalekuan. Txapelketan zehar Antton

Pebet pilotari zendua gogoan izan badute ere, atzo bereziki gertu sentitu zen. Partidak amaitu ostean, Amaia Agirre bertsolariak pilotari lapurtar zenduaren oroimenez idatzitako bertsoak entzuteko aukera izan zen.

Omenalditxoaren ostean sari banaketari ekin zioten. Egun, eskupilotan izen handia duten profesionalak arduratu ziren txapelak jartzeaz eta garaikurrak emateaz, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea leitzarrak, Mikal Olazabal aresoarra eta Etxarri-Aranazko Aitor Zubietia.

Behin guztia bukatuta, Memorial honi amaiera bikaina emateko, txapelketako finalera iritsi ziren pilotari guztiak eta antolatzaile eta laguntzen aritu zirenek, lehia zuzen pilotariak, berriro elkarrekin ikusteko. Izan ere, antolatzaileek lehendabiziko hau amaitzerako aurreratu zuten, bigarren bat egongo dela.



Bigarren finalerdia galdu egin zuen Zeberio; atzo, azkena irabazi. HITZA

## Zeberio II.ak Tejados Aoiz Txapelketako finala jokatu du

**Elduain** » Finalerdietako hirugarren partida irabazi zuen Badiolarekin batera Ezkurra-Ionen aurka, lehia zail batean (38-40).

## ERREDAKZIOA

Asko sufrututa baina azkenean Tejados Aoiz Txapelketako finalean da Zeberio, atzo finalerdietako hirugarren partida irabazita. Badiola bikotearekin batera Ezkurra eta Ionen aurka gailendu ziren, 38-40ko emaitzarekin.

Finalerdietako aurreko bi partidekin alderatuz, atzoko hau izan zen estuena. Bi puntuko alde baina ez zuten izan aurkarietako. Galarreta pilotalekuan ikusle ugari bildu ziren. Partidaren hasiera hobe izan zen Zeberio II.a eta Badiolarentzat, azken honek bereziki hasiera ezin hobea izan zuelarik. 11-17 jarri ziren markagailuan baina aurkariak ez zuten amore eman eta markagailuan gerturatzea lortu zuten, 19-19raino.

Ezkurra-Ion bikotea aurretik ere jarri zen berdinketa honen ondoren, 33-30 eta 35-32, hain zuzen ere. Ion atzealdean bikain aritu zen, Zeberioaren jokoa ederki ekidinez. Unerik garrantzitsuenean, hala ere, zortea Zeberio eta Badiolaren alde jarri zen eta 3-8ko partziala lortu zuten. Amaieran Zeberio II.aren lana goraiatzeko izan zen. Azken emaitza, esan bezala, 38-40.

## Zeberio «oso gustura» garaipenarekin

Partidaren amaieran oso pozik azaldu zen elduaindarra: «Pozik egoteko modukoa izan da garaipena; partida zaila izango zela bage nekien eta horrelaxe izan da; aurkari oso gogor aritu dira». Hala ere, bere lanaren inguruan ere jardun zuen eta «une askotan ez naiz

battere eroso sentitu», aitortu zuen Zeberio. «Ez naiz jokoa gustura sartu, 32. tantoan Badiolak eta biok hitz egin dugu eta zabaletik ateratzen hasi da; hori izan da garaipenaren gakoa, zortea irabazi batera, noski», gaineratu zuen.

Bere bikotearentzat, Badiolarentzat, lehen final handia izango da. «Azken urteetako lanaren emaitza izan da garaipena niretzat», adierazi zuen. Aurkariak ere hitz egin zuten norgehiagokaren amaieran. Ezkurra finala «bertan izanik pena handia» sentitu zuen. «Tantoa egiteko gakoa nire eskue-

## Zeberio II.a: «32. tantoan zabaletik ateratzen hasi da Badiola, hori izan da garaipenaren gakoa»

tan izan dut baina ez dut bukatu», zion. «Zapore gazi-gozoarekin bukatu dugu txapelketa», esan zuen, bere aldetik, Ionek. «Amaieran Zeberio II.a bikain» aritu zela azpimarratu nahi izan zuen azpeitiarrak eta «hurrengo urtean beharko du» gaineratu.

## Bigarren finalistak gaur erabakiko dira

Tejados Aoiz Txapelketaren lehen finalistek gaur bertan jakingo dute zeintzuk izango diren euren aurkariak. Bigarren finalerdian ere hirugarren partida jokatu behar izan dute finalerako txartela norrentzat den erabakitzeko. Aurrez aurre Urriza-Lizaso eta Juaristi-Urrutia bikoteak izango dira, Euskal Jai Berri-Reyno de Navarra pilotalekuan. Joanekeo partida lehen bikotearentzat izan zen (40-31) eta bigarrena, noski, bigarrenarentzat (34-40).

Ustez, Urrizak eta Lizasok etxean jokatzeko dute euren alde, baina dudarik gabe, hau ere partida bo- rrotatua izango da.



Hotzari aurre egin behar izan zioten pilotariek atzokoan Bear-Zana pilotalekuan. E. EZBEZA

## Fernandez 49er mailako Munduko Txapelketako lehen postuan

## ERREDAKZIOA

Xabi Fernandez ibartarra, Iker Martinezekin batera, 49er mailako Munduko Txapelketa gogorren lehen postuan aurkitzen da une honetan. Hain zuzen, gaur jokatu dute azken jardunaldia eta bertan erabakiko da txapelaldia. Bahametan jokatzeko ari dira txa-

pelketan 22 puntuko alde dute bigarren bikotearekiko. Erresuma Batuko Morrison eta Rhodes-ekiko, alegia. Bezperan, 19ko alde baina ez zuten.

Hala ere, txapelketak bestelako norabidea har dezakeela gogoratu du Fernandezek: «Oso gustura gaude eta aitortu behar da alde ga-

rrantzitsua dela; hala ere, ez dago ezer erabakita txapelketa amaitzen den arte».

Gogoratu behar da Fernandezek eta Martinezek gorakada nabarmena egin zutelara pasa den aste-ko jardunaldian, hamabosgarren postutik bigarreneko salto egin ondoren.



## Peio Olanoren askatasuna eskatuz

**LIZARTZA** ● 300 lagun inguruk Peio Olano bizilagunaren askatasuna eskatuz manifestazioa egin zuten atzo *Peio askatu! Utzi bakean Lizartza* lelopean. Pasa den ostegun gauen eraman zuten Guardia Zibilak li-

zartzarra ETArekin lotura duelakoan. Hain zuzen, ETArekin lehergaiak garraiatzea leporatzen diote. Olanon inkomunikaturik jarraitzen duen egunetarako elkarretaratzera deitu dute, 20:00etan plazan. **HITZA**

## Bonbereneak indartsu ekin dio hamarkada berriari

**Tolosa** » Herenegun Gari izan zen lehena emanaldia eskaintzen eta atzokoan irratia urteurren ospakizuna egin zuten.

### ERREDAKZIOA

Gari musikariak herenegun ilun-tzean estreinatu zuen Bonbereneako 2010eko denboraldia. Bere azken lana, *16 lore*, aurkeztu zuen, hain zuzen, legazpiarrak. Kalean hotz zegoen baina ederki berotu zuen giroa musikariak.

Atzokoan, berriz, irratia izan zuen protagonismoa, izan ere Bonberenea Irratiaren 1. urteurrena ospatu zuten. Horretarako arratsalde guztian zehar zuzeneko saioa egin zuten Bonbereneako gazteek. 16:00etan hasi ziren; tartean Patxi Muñoari eginiko elkarrizketa eta urteko balorazioa bil-tzen zuten saioak izan zuten entzungai irratiko uhinekin bat egin zutenek. «Antolatutako kontzertuak, jaialdiak, kaleratutako diskoak... Honen guztiaren errepasoa egin dugun», azaldu zuten gazteek. Gauean Biok taldeak Bonberenean bertan eskaini zuen kontzertua zuzenean emititu zuten irratia.

Bonbereneako gazteak «gustura» azaldu ziren urte honetako eman duenarekin. 2008an jarri zuten martxan irratia, biltegi zaharra izandako aretoa atondoan zutelarik horretarako. Kontrol aretoa eta elkarrizketa gela txiki batek osatzen dute Bonbereneako irratia txiki handia.



Irratiko urteurrena ospatzeko zuzeneko saioa egin zuten Bonberenean. E. E.



'16 lore' diskoa aurkeztu zuen Gari, herenegun, Bonberenean. E. EZEIZA



Areso (irudian) eta Leitza ere ez ziren elurteaz libratu. **HITZA**

Gogotik bota zuen elurra atzo gauean eta eskualdea zuri-zuri esnatu zen goizaldean; ohi bezala elurrak errepideetan hainbat arazo eragin zituen.

## Izara zuriaz estali da eskualdea

### ERREDAKZIOA

Igogailuetako gaia izaten omen da eguraldiarena, baina atzokoan igogailu ez zirenetan ere entzun ziren elurtearen inguruko elkarrizketak. Eta ez zen gutxiagorako. Zuri-zuri esnatu baitziren eskualdeko mendi eta kaleak eta horrela jarraitu zuten egun guztian zehar.

Ohi bezala, erregina zuriak bere bi aurpegi erakutsi zituen; bata, paisaia zoragarriena, bestea, errepide eta kaleetan sortzen dituen arazoena. Eskualdean ez zen arazo larririk izan baina elurra kentzeko makinek etengabe zeharkatu zituzten Tolosaldeko errepideak.

Nafarroan ere ez zuten hain

elurte mardula espero eta elurra kentzeko makinek etengabe egin behar izan zuten lan. Nafarroako Gobernuak aurrez pentsatutako makina kopurua biderkatu behar izan zuen. Hala ere, atzo goizean eskualdetik igarotzen den A-15 errepidea itxita egon zen tarte batez, baina eguerdi alderako Leitza-rango autobide hau ireki egin zuten.

### Hotzak eta elurak bihar arte iraungo du

Denboralea bihar arte geratuko omen da Euskal Herrian, adituen esanetan. Pixkanaka, ordea, elur kota igo egingo da eta paisaia elur-tuak mendiaren bakarrik geratuko dira.



Albiztur zurituta, postal eder baterako argazkia. E. EZEIZA



Tolosan ere elurra ederki bota zuen arratsaldean. E. EZEIZA

Tolosaldean, leku guztietan bezala, langabezia tasa igo egin da azken hilabeteetan. Baina krisi garaiaz haratago azken urteetan enpresa asko itxi dira, batez ere, papergintzaren sektorean.

# Paperaren aroari agur

REBEKA CALVO

**L**angabezia etengabe hazten ari da Euskal Herri osoan eta Tolosaldean ere langabezia tasa altua dago. 2008. urteko irailean 1.698 langabetu zeuden eta urtebete inguru beranduago, 2009ko abenduan, 2.398 ziren INEM-eko bulegoetako langabetuen zerrrenda osatzen zuten biztanleak, hau da, %41a gehiago.

Tolosaldean paper-fabriken bilgune izatetik eta *paper-hiribildua* bezala ezaguna izatetik industria-sareak galtzera pasa da. Etengabeko prozesua izan da eta azken urteetan ia paper-fabrika guztiak galdu ditu. Tolosaldean sindikatuen ordezkariaren %42 duen LAB sindikatuko Tolosaldeko arduradunaren, Mari Mujikaren, hitzetan «Tolosaldean beti papergintzaren inguruko sektoreari lotuta egon da, baita grafikagintza eta hauen makinariarekin zerikusia zuten metalgintza enprekin ere. Orain oso argi ikusten dugu pixkanaka desagertzen ari direla eta horrek daukan gauza positibo bakarra da Oria ibaiaren garbiago datorrela. Baina kontua da zeuden paper-fabrika guztiak (Etxezarreta Irura, San Jose, Tolosana, Araxes...) desagertzen ari direla. Papergintzak asko kezkatzen gaitu, izan ere horrekin lotuta dago baita ere Paper Eskola. Ez dakigu zein den eskolaren papera, hortik ingeniari asko ateratzen dira eta gaur egun kanpora joan behar dute. Benetan zein funtzio betetzen du? zein paper dago-kiotorkizuneari?, galdetzen du.

**Tolosaldean abenduan 2.398 ziren INEM-eko langabetuen zerrrenda osatzen zuten pertsonak**

**Azken urteetan paper-fabrika asko itxi dituzte; San Jose, Etxezarreta Irura, Tolosana...**

## Papergintzaren zirkloa

Badirudi hortaz, paperaren zirkloa bukatu dela Tolosaldean, eta beraz LABeko arduradunarentzat ezinbestekoa da «eskualde bezala jarraituko dugun apustu estrategikoa zehaztu eta lanean hastea». «Zer egingo dugu Tolosaldearekin?», galdetzen du.

Izan ere, papergintzaz gain Tolosaldeko sare industrialak ere

«izugarritzko pisua» galdu du Mujikaren hitzetan.

«Sare industrialak izugarritzko pisua galdu du eta une honetan Tolosako enpresarik handiena Udaletxea bera da. Horrek oso grafikoki azaltzen du nola dagoen tolosaldeko industria momentu honetan», gaineratu du.

## Egungo egoera

Tolosaldeko industriaren egoera momentu honetan horrela ikusten du sindikalistak: «Guk egunero koa ikusten dugu eta ikusten duguna da kristoren langabetu pila ditugula, ERE pila bat ditugula, enpresa dezente ditugula kolokan eta gure begien aurrean ez dugula ikusten errealitate hau epe motzean aldatuko denik. Lehenik ehunka eta ehunka lanpostu galdu badiugu, aurrera begira ere basamortu industrial baten aurrean aurkitu gaitzeko».

Egoera hau izanda LABeko ki-deak zoru industrial gehiago zertarako behar ditugun galdetzen du: «Pabiloi huts pila bat ditugu eta epe motzera ere Apataerrekian beste pabiloi gehiago izan ahal ditugu, oso politikak, baina hutsak. Beraz, guk egiten dugun hausnarketa horixe da, egoera horrelakoa bada bertako instituzioek, kasu honetan Tolosaldean ditugun 28 udalerrietako ordezkariak, esan beharko dutelaz zer bait. Bestela, ez dakit zeinek esan beharko duen».

Mujikak «enplegua mantentzea» beharrezkoa dela dio, eskualdeko gazteak beste zonalde batzuetara jotzen dute lan bila eta beraz industria zoru gehiago egitera baino, lana beste norabide batean egingo luke.

«Ez zait oso zuzena iruditzen agintariak esatea Tolosaldean industriagune gehiago behar ditugula. Apataerreka momentu honetan hazi beharrean husten ari da, enpresa batzuk ireki baino lehen itxi dute... Alde horretatik, esatea Apataerreka 22 mila metro karratutan hazi behar dela ez dauka zentzurik. Zein joango da bertara? SAM aldamenen ere beste industrialde bat egingo dutela esateak ere ez dauka zentzurik. Badago besterik ere, Adunan 130.000 metro karratutako zorua industrializatzea jota dago jada. Horretarako, gainera, baserriak botako dituzte... eta zein zentzurik dira industrialde horiek? Esateko zein etorriko den! Apataerrekan funtsean egin dutena da lehen zeuden enpresak ber-



LAB sindikatuko Tolosaldeko arduraduna, Mari Mujika, kezkatuta dago Tolosaldeko industriaren egoerarekin. R. CALVO

kokatu, ez dute ezer berria sortu. Egin den apustuarekin ez da ezer sortu eta beraz ez dut uste industrialde gehiago behar ditugunik».

## ERE ugari inguruko enprezetan ere

Mujikak azkenaldian guztion ahotan dagoen gaia ere aipatu du, EREena. Askok dira enplegua erregulatzeko txostenak dituzten edo-

**Mari Mujika: «Geroz eta tailer txikiagoak daude, beraien artean lehiatzen direnak»**

**Enpresa askotan daude EREak: Panelfisa, Obeki, Unipapel, Voith, Insaluz, Sanz, Emusi...**

ta izan dituzten enpresak Tolosaldean, batzuk aipatzeagatik: Panelfisa, Obeki, Endaki, Arreche, Voith, Emusi, Arteka, Munksjo Paper, Sanz, Insaluz, Aralar paper-fabrika, Unipapel...».

«Eskualdeko EREei dagokionez alde batetik, legezatuak edo erregistratuta dauden EREak aipatu behar dira, eta bestetik, ofizialtasun horretatik kanpo daude-

nak eta beste formula batzuk erabiltzen dituztenak, orduen metaketa, esate baterako, eta beraz, ez dute EREa sartzen, euren irudia edo kaltetu dezakeelako, baina funtsean kalte bera egiten dute. Langile asko daude momentu honetan enpresarekin kristoren zorrak dituztenak. Egoera honi aurre egiten ez badiogu enpresa hauetan bi arazo izango ditugu: langile batzuk enpresari ordu pila bat zorko dizkiotela, baina aldi berean lanik ez dagoenez EREak aurkeztuko dituztela eta izugarritzko kalapitak sortuko direla». Gorostidi ere ekarri du gogora Mujikak. «Momentu honetan Gorostidi etenaldiko espedienteetan dago, lehenengoa bukatutzat ematen da eta orain bigarrenengan sartuko dira, baina Gorostidiko etorkizunaren inguruan zalantza asko daude», argitu du.

Mujika etorkizunarekin kezkatuta agertzen da, «une honetan geroz eta tailer txikiagoak daude, beraien artean lehiatzen eta mokoka dabilzanak, baina ezin dutenak lehiatu enpresa handiekin. Beraz, horren inguruan ere azterketaren bat ere egin beharko da».

## Merkataritza eta ostalaritza

LABeko arduradunak oso jarrera kritikoa agertzen du, bere ustez, Tolosaldeak «benetako apustua»

behar du, «arazoari heltzeko» garaia iritsi dela dio: «Inguruko merkataritza eta ostalaritza zaindu behar ditugu, baina beste sektoreak ahaztu gabe».

«Lehenengo sektorea adibidez, oso egoera txarrean dago. Askok ere ukituago dago eta hala ere, ez du beste batzuk jasotzen duen babes bera. Hemen larunbaterako azoka bereziak egin ditzaizkegu,

**Apataerrekian 22 mila metro karratuko zabalkuntza egin nahi dute**

**Adunan ere 130.000 metro karratuko zorua industrializatzea joko dute jada**

baina errealitatea da lehen sektorea pikutara doala. EHNE eta ENBA hausnarketa komun batzuetara iritsi dira eta gure ustez hauxe da bidea, elkarlanean ari behar dugun».

«Guk ere beraiek bezala argi ikusten dugu lehen sektorea pikutara doala eta ez dutela inoren laguntzarik», dio LABeko Tolosaldeko arduradunak.

# Asvineneako 4. Poltsikoko Antzerki Lehiaketak ateak zabalik ditu

**Aduna** » Martxoaren 12a bitarte izena emateko aukera dago. Gaia eta teknika libreak dira eta edonork dauka parte hartzeko aukera.

## ENERITZ MAIZ

**A**rgiak itzaltzen dira. Zentzuak esnatzen dira, isiltasuna, bihotz taupadak, itxaropenez amestutako errealtatea edertasunean lehertzen da...! Adunako Asvinenea Elkarte Kulturalak ateak zabaldu ditu. Laugarren urte jarraian Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatuko dute.

Asvineneak dituen helburuen artean, formatu txikiko ikuskizunak sustatzea eta zabaltzea dago. Era berean, kultur trukerako espazioen sortzea eta gestioa edota beste elkarteekin kolaboratzea daude. Balore berrien formakuntza eta teknika eszenikoan ikerketa ere horien artean daude. Lehiaketa honetarako Organizazio izenez izendatu duten lan taldea sortu dute eta beraien lana oinarriak zehaztea izan da.

Jada izen emateko epea zabalik dago eta martxoaren 12 a da azken eguna. Parte hartu nahi duenak, parte hartze orri batekin behar du eta orri hori [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) web orrian edota [poltsiko10@gmail.com](mailto:poltsiko10@gmail.com) helbidera idatziz eskura dezake.

Izena emateko beharrezkoa da testuaren kopia edo obraren sinopsia, piezaren titulua eta parte hartzailearen edo parte hartzaileen izen artistikoa, partaideen datu pertsonalak, harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat eta antzerkiak dituen behar teknikoak zehaztuta bidaltzea.

Antolatzaileen erabakiz, parte hartzaile bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu seinale gisa. Amaieran itzuliko litzateke diru hori. Lehiaketak aurrera egin dezan, 16 antzerki aurkeztu beharko dira gutxienez eta 24 gehienera. Kopuru hori gaudituko balitz, antolatzaileek egingo lukete aukeraketa.

## Deialdi guztiz irekia

Poltsikoko Antzerki Lehiaketa honetan ate guztiak zabalik daude. Bertan profesional zein amateurrek parte hartu dezakete baina parte hartzera animatzen denak, antzerki bat soilik aurkeztu ahal izango du Lehiaketan.

Taldean edo banaka aurkeztu daiteke eta gaia eta teknikak guztiz libreak izango dira, beraz, bako-



Asvineneak antolatuko duen 4. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa martxan dela adierazten duen kartela. HITZA

tzaren gaitasunen arabera izango dira antzerkiak.

Aurkezten diren lanek origina- lak izan behar dute eta iraupenari dagokionean, gutxienez 8 minutu eta gehienez 15 minutuko luzera izango du Lehiaketan.

Lehiaketa zazpi galatan gauzatu- tuko da eta hasiera apirilaren 16an emango litzaioko. Finala be-

rriz, maiatzaren 28an izango litzate- ke. Gala bakoitzetik, 2 antzerki egingo lukete aurrerako pausua.

Lanak epaitzeko bi epaimahai mota zehaztu dituzte. Gala bakoitzaren hasieran aurkeztuko da epaimahai bat baina bestea, publi- koaren artean erabakia izango da. Horretarako, ikus-entzuleen arte- an paperak banatuko dituzte eta

gala bakoitza bukatu ostean boz- kak zenbatuko dituzte publikoa- ren gustukoena aukeratzu.

Lehiaketa guztietan bezala, he- meneresariak izango dira. Asvine- neako epaimahaiaren ustez an- tzerki hobereena denak 1000 euro irabaziko ditu eta publikoaren boz- ken bidez ateratzen den an- tzerki hoberean 500 euro.

## «Inguruan ia ez dago ezer eta antzerki eta ikuskizunetara jendea gerturatzea nahi da»

**AMAIA PAGOLA** » Asvineneako kidea

**Antzerkia** » Artea, dantza, musika, ipuinak, antzerkia... maite duenak Adunan dagoen Asvinenean badu bere toki.

## E. MAIZ

Amaia Pagola (1983, Gaztelu) Asvinenea Elkarte Kulturalako kidea da. 4. Poltsiko Antzerki Lehiaketa- ren berri eman digu.

**Laugarren urtea duzue aurtengo. Zer moduzko erantzuna izaten du Lehiaketa honek?**

Orain dela lau urte egin zen lehen aldiz eta lehenengo oso arrakatsua izan zen. Antzerkia gustatzen zaion jendeari, ikusteko edota parte hartzeko irekia dago. Udaberri aldera urtero errepikatzen da eta oso positiboa da. Geroz eta partaide gehiagok ematen dute izena. Agian, ia, publiko aldetik jende gutxiago ibili zen.



E. MAIZ

## Guztiz irekia da beraz?

Bai, bai, guztiz irekia da. Pertsona- ki, taldean, amateurrak edo profesio- nala izan, berdin dio. Guztiak hartzen dute parte. Madriletik edo Getxotik etorri izan dira, denetik

pixka bat. Mundu guztia ongi eto- rria da.

## Zein dira helburuak?

Antzerkia maitatzea. Hemen in- guruan ia ez dago ezer eta jendea antzerki edo ikuskizunetara ger-

turatu nahi da. Parte hartzaile edo ikusle bezala bultzada bat eman nahi zaio. Ikusle bezala ere, agian ostiral batean ez dakizu zer egin eta antzerkia ikustera joatea ani- matu nahi genuke.

## Antzerkiak sortua izan behar du?

Beste lehiaketa batean aurkeztua ez den bitartean librea da. Hobe sortua izatea eta gainera gai erabat librea: politika, sexua, euskara... taldean edo bakarka, gutxienez 8 minutu izan behar ditu eta gehie- nez 15 minutu.

## Nola baloratzen da parte hartzaile- len lana?

Bi epaimahai izaten dira, alde bate- tik antolatzaileen epaimahaia dago eta bestetik publikoarena izate- da. Publikoarena dibertigarria izan ohi da, oso alai.

## Zer esan, zalantzan dagoenari?

Parte hartzeko epea zabalik dago martxoaren 12a bitarte eta irekia denez animatzeko esango nioke. Antzerkia gustatuz gero eta zer- bait eduki edo talderen batean ego- nez gero, parte hartzeko. Idatzi, deitu edo internet bidez gure orrian begiratzeko.

## Zer da Asvinenea?

Arte eszeniko eta eszenatokiari begira, eta ez bakarrik antzerkia baizik eta titiritero, dantza, oihale- kin, ikastaroak... azken finean arte- arren laborategi bat da. Bazkideak gaude eta gauzak egiteko ilusio asko dugu. Artea, musika, dantza, ipuinak, antzerkia... gustatuz gero erabari irekia da Asvinenea eta eza- gutzeak merezi du.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Anoeta.** Dantza-soka otsailaren 6an izango da aurtengoan eta dagoeneko parte hartzeko izena eman daiteke Itzuli Tabernan. Hilaren 15ean, 22an eta 29an axeridantza erakutsiko diete gerturaz direnei. Astelehenetan (hilak 11, 18 eta 25) fandangoa eta arinarina erakutsiko dute. Lehen ensegua orokorra aldir, otsailaren 1ean izango da, 19:30ean. Aurtengoan lehen aldir entseguak Kiroldegian izango dira.

■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkartearako asanblada egingo dugu gaur, hilak 10, 11:30ean. Bertan ekonomiaz, urteko ekintzeaz eta zuzendaritza taldea berriro jarri dugu dute.

■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen bilera etzi, hilak 12, Kultur Etxeko areto nagusian. Bilakura 19:00etan hasiko da. Bestalde, bihartik aurrera zabalik egongo da Udalak antolatzen duen Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketa izena emateko epea. Hau Kultur Etxean nahiz Udalaren webgunean. Honetaz gain, hilaren 14ean, 19:00etan, Jai Batzordearen bilera izango da Kultur Etxeko bigarren solairuko gelan. Inauterietatik izango dira hemen ere hizpide.

■ **Tolosa.** 2010eko mendi federatu txartela egin daiteke Alpino Uzturre elkartearen, Gudari 5 helbidean, astelehen eta asteazkenetan, 19:30etik 20:30era edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbide elektronikoan.

■ **Tolosa.** Haur danborradan Kosakas aterata nahi duenak, hilaren 16, 23 eta 30ko musika eskolako entseguetara azaldu beharko du, 15:30etik 16:30era bitartean. Apeadero sarrera erabili.

■ **Tolosa.** Euskal Herria plaza berreskuratutako oinezkoentzat jarri zeko prozesuarekin jarraituz, honakoa jakinarazi du Tolosako Uda-

lak: bihar, hilaren 11, hasiko dira plazako zoladura birgaitzeko lanak. Hori dela eta, debekatuta egongo da bertan aparkatzea. Plazaz berreskuratze ondorengo lanak egingo dira: zoladura konpondu eta hiri altzari berriak jarri. Jarraian honen helburu nagusia Tolosako Hirigune Historikoko espazio hau oinezkoentzat berreskuratzea da.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Aranburu Jauregian Nartura 2000 erakusketari ibiltaria ikusteko aukera dago.

■ **Tolosa.** Mikel Azpillaga margolari donostiarren 200-08 eta *Atzerako begirada* erakusketari Aranburu Jauregian hilaren 16ra bitarte, 17:30etik 20:30era, jaiegutetan eta astelehenetan izan ezik.

■ **Tolosa.** Igor Obesoren beira lanen bilduma, *Aquatica*, Tolosako GKO arte galerian ikusgai egongo da hilaren 30a bitarte.

### Ikastaroak

■ **Alegia.** Lau ikastarotatik izena emateko aukera: pilates, sendabellerrei buruzko tailerra, aerodance eta eskulanetan. Hilak 18a baino lehen eman beharko da izena Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxean edo [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) helbide elektronikoan.

### Txotxongiloak

■ **Tolosa.** Los Duendes txotxongilo taldearen *La Capercucita no, gracias* lana gaur, hilak 10, 12:30ean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.



## Txotxongilo emanaldi jendetsua

**TOLOSA** • Los Duendes txotxongilo taldekoek *La capercucita no, gracias* (*Txanogorritxu ez, mila esker*) lana aurkeztu zuten atzokoan, Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko zentroan Topic-en. Atzokoan emanaldia

galdu zuenak gaur izango du ikusteko bigarren aukera, eszenatoki berdinean, 12:30ean. Aretoan jende ugari bildu zen eta algarak ere entzun ziren Susanita protagonistaren istorioei esker. E.EZEIZA

## A Agurrak



### Zorionak!

**Haizea eta aitona Antton (Ibarra eta Zizurkil).**  
Zorionak eta muxu goxoak biharko egunean.

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	